BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIRAKO FILMEN ITZULPEN ETA AZPITITULAZIO ZERBITZUAK KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Zinemaldiak esleitzen dizkion proiekzioen itzulpen eta azpititulu elektronikoko zerbitzuak kontratatzea da, plegu honen arabera.

Kontratuak enpresa esleipendunak egin beharreko zeregin eta zerbitzu hauek biltzen ditu:

- Zinemaldiak esleitzen dizkion proiekzioak gaztelaniara, euskarara edo ingelesera itzultzea, bihurtzea, azpitituluetara egokitzea eta aretoan aurkeztea.
- Zinemaldiak esleitzen dizkion proiekzioen gaztelaniarako, euskararako edo ingeleserako itzulpena zuzentzea, bihurtzea, azpitituluetara egokitzea eta aretoan aurkeztea.
- Zinemaldiak azpititulatutako edota bikoiztutako kopia ematen duenean, proiekzioen azpitituluak egokitzea, jatorrizko bertsioan berrikustea eta aretoan aurkeztea.
- Enpresa esleipendunak lan egin behar duen zinema aretoetako tresneria, instalazioa eta mantentzea.
- Aurreko puntuetan adierazitako lanak tokian-tokian egiteko behar den pertsona taldea ekartzea.

Zinemaldia martxan den egunetan, litekeena izango da azpititulu elektronikoetarako tresna gehiago instalatu behar izatea behin-behinean, Zinemaldiak egoki deritzon zinema aretoetan.

2 ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Kontratuaren xede den zerbitzuak ezaugarri hauek izango ditu:

a) Hizkuntzak:

Oro har, euskara, gaztelania eta ingelesa izango dira azpitituluen hizkuntzak.

Aurreko edizioetako abiapuntu hizkuntzak gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, italiera, portugesa, japoniera, errumaniera, mandarin txinera eta eskandinaviar hizkuntzak (suediera, finlandiera, daniera eta islandiera izan dira. Hala ere, urte batetik bestera alda daitezke, programazioaren arabera, eta, beraz, esleipendunak zerbitzua eman beharko du, halaber, abiapuntuko hizkuntzak adierazitakoez bestelakoak diren kasuetan.

b) Lana Zinemaldiak esleipendunari emango dizkion kopietatik abiatuta egingo dira beti.

c) Azpitituluak jartzeko, azpitituluak denbora errealean proiektatzeko egokia den programa bat erabili beharko da, automatikoki edo eskuz sinkronizatzeko aukera ematen duena.

d) Azpitituluak proiekzio-lekutik kanpo jartzeko aukera izan beharko da, enpresa esleipendunak *ad hoc* instalatutako pantaila batean edota, beharrezkoa bada, zinema-aretoko pantailan proiektatzen den filmaren irudien barruan.

e) Azpititulu bikoitza aldi berean jartzeko aukera eskaini beharko da, eskatzen diren hizkuntzetan.

f) Azpititulu hirukoitza aldi berean jartzeko aukera eskaini beharko da, eskatzen diren hizkuntzetan.

g) Zinemaldiak emandako artxibo batetik abiatuta, kopia berri bat egiteko aukera eskaini beharko da, kostu gehigarririk gabe, azpitituluak kopia horretan jartzeko. Kopiak euskarri hauetako edozeinetan eska litezke: DCP, BLURAY, DVD, MOV. Era berean, Zinemaldiak azpitituluen artxiboa eskatu ahal izango du SRT edo XML formatuan, kopiari eransteko. Zinemaldiak ematen duen materialarekin doituta eta sinkronizatuta egon beharko du.

3.- ENKARGUAK

Zinemaldiak enkargu bakoitzaren idatzizko eskaera egingo du. Eskabide horretan, azpititulatu beharreko filmaren edo filmen tituluak eta kontratatu nahi den zerbitzu-modalitatea agertuko dira.

Zerbitzuak, kontratazio-modalitate zehatzaren arabera, ondoren zerrendatzen diren prestazioren bat edo guztiak barne hartuko ditu:

- Euskarara, gaztelaniara edo ingelesera itzultzea, jatorrizko hizkuntzatik.
- Salbuespenezko kasuetan, Zinemaldiak eskatutako estandarrak betetzen ez dituzten azpitituluak zuzentzeko eskatuko da.
- Azpitituluen bihurketa, sinkronizazioa-egokitzapena.
- Aretoan aurkeztea (azpititulu elektronikoa denean) edo proiekzio-kopia sortzea azpititulu eta guzti (azpititulu digitala denean).

Zinemaldiak, oro har, uztaila eta abuztua bitartean egingo du eskaeren bolumen handiena. Hala ere, irailean ere eskaerak egingo dira.

Esleipendunak hitzartutako bitartekoen bidez entregatu beharko ditu enkarguaren xede diren lanak, eskaera egin eta 15 eguneko epean. Irailean eta kasu jakin batzuetan, 2 eguneko tartearekin eskatu ahal izango da entrega.

Lizitatzaileek epe horiek murriztu ahal izango dituzte eskaintzetan.

4.- GUTXIENEKO EKIPAMENDUA

Oro har -zerrenda mugatua ez den arren-, honako areto hauetan proiektatuko dira filmak: Kursaal Zentroa (K1 eta K2, bi areto), Príncipe Zinemak (4 areto), Trueba (2 areto), Antiguo Berri Zinemak (2 areto), Belodromoa (areto 1), Tabakalera (2 areto), Victoria Eugenia Antzokia (areto 1) eta Antzoki Zaharra (areto 1). Areto horietatik 11 hornitu behar dira.

Aretoetako batzuek pantaila eta proiektorea dute azpitituluentzat:

- Tabakalerako zinema-aretoak (2 areto):
  - Tabakalerako zinema-aretoa: 5000 lumeneko proiektorea eta 9,47 x 0,50-eko pantaila.
  - Filmategiko zinema-aretoa: 2000 lumeneko proiektorea eta 2,50 x 0,42-ko pantaila.
- Victoria Eugenia Antzokia: 2500 lumeneko proiektorea, 3.5-6.3 bitarteko optika eta 457 zentimetro eta 60 zentimetroko pantaila.
- Antzoki Zaharra: 2500 lumeneko proiektorea, 1.7-2.8 bitarteko optika eta 300 zentimetro eta 60 zentimetroko pantaila.

Oro har, K1ean proiektatzen diren filmak hiru hizkuntza ofizialetan (euskara, gaztelania eta ingelesa) ulertu behar dira aldi berean. Jatorrizko hizkuntza hiru horietako bat ere ez duten proiekzioetan, aldi bereko hiru azpititulu beharko dira; bat, oro har baina ez modu esklusiboan, filmaren kopian, eta bi kanpoko azpititulu elektronikoak.

Lizitatzaileek 2. gutun-azalean azaldu beharko dute azpititulatze hori garatzeko proposamen teknikoa, funtsezkotzat hartuta azpititulu guztien (kimikoa eta kanpoko biak) arteko sinkronizazioa, sistemaren egonkortasuna eta sistemaren irizpide estetiko eta funtzionala, nazioarteko estandarren arabera. Eranskinean, azpititulu hirukoitza aurreikusten den aretoetako filmak proiektatzeko ekipamendu-eredua zehazten da.

Esleipendunak konpromisoa hartzen du kontratua gauzatzeko, gutxienez, ekipamendu hau atxikitzeko:

a) 20 bideo-proiektagailu, ondorengo ezaugarri hauekin:

- Areto txikietarako 3000 lumeneko gutxieneko potentzia duten kontraste altuko FullHD bideo-proiektagailuak, K2rako 6000 lumeneko gutxieneko potentzia duten bideo-proiektagailuak, eta K1erako eta Belodromorako 12000 lumeneko gutxieneko potentzia duten bideo-proiektagailuak. Bideo-proiektagailuek eta lanparek erabiltzeko baldintza egokietan egon beharko dute.
- Angelu handi, estandar, semi-tele eta teleobjektibo optikak makina guztientzat, behar den lekuan behar bezala instalatu ahal izateko.

b) Beteko dituzten funtzioetarako software profesionala duten 25 ordenagailu eramangarri. Batzuk aretoetan erabiliko dira, eta besteak aretoz kanpoko itzulpen eta berrikuspen lanak egiteko.
Aretoan erabiltzeko eramangarriek bateria baldintza onetan eta pantailaren argitasuna kontrolatzeko aukera izan behar dute.

c) Aretoetan muntatzeko ezinbesteko osagarriak:

- Mahai teleskopikoak (areto bakoitzeko altuera eta zabaltasunera egokitu daitezen, inpaktua minimizatzeko).
- Edizio bakoitzerako beharrezkoak diren azpitituluetarako proiekzio pantailak.
- Ekipamenduen funtzionamendu egokia bermatzeko VGA kableatua eo goragoko kableatu blindatua, eta Zinemaldiak beharrezkotzat jotzen duen lekuetan instalatzeko adinako luzerakoa, horrek haren funtzionamenduari kalterik egin gabe.
- Aretoetan erregulartasuna eta segurtasuna bermatzeko homologatutako korronte-kableak eta erregeleta profesionalak, Zinemaldiak beharrezkotzat jotzen duen tokian konektatzeko adinako luzera dutenak.
- Kalitate profesionaleko zintak eta ainguratze-sistemak, kolore ilunekoak eta matekoak, kableatua ziurtatzeko.
- Maskaratze-sistema, proiekzioa azpitituluen pantailaren barruan mugatzeko, zinemako pantailan edo azpitituluen pantaila ez den beste edozein zatitan sartzea ekiditeko.

d) Telezineatua egiteko ekipamendua.

5.- LANGILEAK

Esleipendunak giza baliabide hauek atxiki beharko dizkio kontratua gauzatzeari, gutxienez:

- <u>Koordinatzaile bat:</u>

Esleipendunak koordinatzaile bat atxiki beharko du kontratua gauzatzeko. Koordinatzaile horrek, gutxienez, lau urteko esperientzia izan beharko du filmetako azpititulu-zerbitzuetan koordinazio-lanak egiten. Koordinatzailearen berariazko eginkizunak izango dira:

- Kontratatutako zerbitzuen gauzatzea koordinatzea eta Zinemalditik jasotako argibideak praktikan jartzea.
- Zinemaldiarekin elkarlanean aritzea, kontratua indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
- Zinemaldiak deitutako bileretara joatea.
- Zinemaldiak eskatzen dion antzeko beste edozein lan egitea.

Edozein arrazoi dela-eta koordinatzaile berri bat izendatzea Zinemaldiak onartu beharko du.

- <u>Itzultzaileak:</u>

Esleipendunak itzulpengintzaz arduratuko den pertsona-talde bat atxiki beharko dio kontratua gauzatzeari, filmen jatorrizko hizkuntzak dakizkiena eta gutxienez lau urteko esperientzia egiaztatua duena.

Zinemaldian zehar itzultzaile talde bat egon beharko da Donostian filmak itzultzen diren hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa) betetzeko.

- Ekipoa zinema-aretoetan instalatzeko teknikariak:

Zinemaldia inauguratu baino egun batzuk lehenagotik, 3 teknikari egon beharko dira ekipoa zinema-aretoetan instalatzeko eta Zinemaldian zehar mantentzeko, gutxienez 4 urteko esperientzia dutenak antzeko ekitaldietan.

- Azpitituluen sinkronizatzaileak:

Zinemaldiaren edizioan zehar, azpituluen 15-18 sinkronizatzaile inguruko talde bat egon beharko da, gutxienez nazioarteko lau zinema-jaialditan funtzio horiek bete dituztela (kabinan azpituluak proiektatzeko jardueretan gutxienez 20 saio) eta azpituluen hizkuntza badakitela egiaztatzen dutenak.

Sinkronizatzaile horiek azpituluak pantailara bidaltzeko prozesu egokia gainbegiratuko dute proiekzioan zehar. Proiekzioen kabinan egon beharko dute proiekzioa hasi baino 30 minutu lehenago gutxienez, eta bertan egon proiekzioa amaitu arte.

Esleipendunak bermatuko du zerbitzu horiek aldi berean eman ahal izango direla areto guztietan.

Profesionalen batek lekualdatu behar badu, esleipendunak Zinemaldiari jakinarazi beharko dio. Zinemaldiak aldez aurretik onartuko du lekualdatutako profesional bakoitzeko zenbat gau hartuko dituen bere gain. Ostatua behar duten profesionalen kopurua minimizatzen saiatuko da esleipenduna. Berariaz jasota uzten da esleipendunak ordainduko dituela kontratuari atxikitako profesionalen dieten gastuak, halakorik balego.

Zinemaldiak azpituluen sinkronizatzaileen banaketaren plangintza eskatuko du proiekzio bakoitzeko.

Enpresa esleipenduna, hierarkikoki, Dokumentazio eta Filmen sailaren mende egongo da itzulpenei dagokienez, eta Sail Teknikoaren mende, berriz, azpituluen proiekzioari dagokionez.

5.- LAN-BOLUMENA

Orientabide eta informazio gisa, 2022an zenbat zerbitzu behar izan ziren adierazten da jarraian. Kopuru hori urte batetik bestera alda daiteke, programazioaren arabera:

- Azpituluak gaztelaniara edo ingelesera itzultzea, egokitze eta aretoan aurkeztea: 32 titulu.
- Azpituluak euskarara itzultzea, egokitzea eta aretoan aurkeztea: 24 titulu, 48 titulura zabaltzeko aukerarekin.
- Egokitzea eta aretoan aurkeztea: 7 titulu.
- Bihurtzea eta aretoan aurkeztea: 59 titulu.
- Film laburren itzulpena, azpituluak egokitzea eta aretoan aurkeztea: 320 minutu.
- Aretoak ekipatzea: 11 areto.

ERANSKINA

Proiekzio-ekipamendua, azpititulu hirukoitzeko aretoetan:

Kursaal 1:
Ekipo nagusia:
Christie 4230 proiektorea
Doremi ShowVault zerbitzaria

Ordezko ekipoa:
Christie 4230 proiektorea
Doremi ShowVault zerbitzaria

Proiekzio-ekipamendua, azpititulu hirukoitza erabil daitekeen aretoetan:

Belodromoa
Ekipo nagusia:
Nec 3541L proiektorea
Zerbitzaria
DOLBY IMS- 3000

Ordezko ekipoa:
Nec 3541L proiektorea
Zerbitzaria
DOLBY IMS- 3000